

MUNDUAK GUZTIONTZAT BEHARKO LUKE

NUALA ELKARTEA

Ane Pirata eta Danel gelakideak dira eta kalean topatu dira. Danel oso pozik dago amarekin Oriora doalako arrauna egitera. Ane Pirata oso pozik dago osabarekin eskola kirolera doalako.



elkarlanean

Kaixo, bikote,
zer zabiltzate?

Oriora goaz. Danel
bertara joaten da piraguan
ibiltzera eta izugarri gustatzen
zaio. Eta, zuek?

Nik eskola
kirola daukat.

Oriora, beraz.
Plan ederra da.

Tira, autismoa duten haurrek
ez dute aisialdirako aukera askorik...
Nuala elkarteak sortu behar izan
ditu aukera horiek.







NUALA ELKARTEA

Elgoibarko eta Mendaroko familiak batzen dituen elkarte da Nuala. Dibertsitate funtzionala eta gaitasunen dibertsitatea daukaten haurren eta gazteen familiek eta lagunek osatzen dute.

Helburu nagusia gaitasun desberdinak dituztenak ikusaraztea eta jendartearen haintzat tokia egitea da, eskubide eta aukera berak izan ditzaten.

2016an sortu zuten Nuala Elkartea. Hilabete batzuk lehenago, Elgoibarko Udalak gonbidatuta, Nuala Gardner eskoziarra herrian egon zen bere errealitatearen berri hitzaldi bat emateko. Liburu batean eta filma batean jasoa dago autismoa duen bere semearen alde egindako bidea. Nualaren bizipenek piztu zuten elkartearen sorrera eta hortik jarri zioten izena.



Gaur egun nagusiki aisialdiaren alorrean lan egiten dute Nualakoek. Biltzen dituzten familietako haurrek –gehienak autistak– traba handiak dituzte aisialdiko eskaintza orokorrean beren tokia topatzeko eta Nualak haien neurriko aisialdi eskaintzak prestatzen ditu.



Santa Ana Kalea, 17- 3ªA, Elgoibar, Gipuzkoa
 Telefonoa: 628512095
 info@nualaekarte.org